

Gizarte Ekimeneko Ikastetxeen Hitzarmeneko Mahaia

Atzo, irailaren 30ean, EAEko Gizarte Ekimeneko Ikastetxeen Lan Hitzarmeneko 18. mahaia bildu zen. Kristau Eskolak negoziazio kolektiboaren testuinguruak nondik nora joan beharko lukeen azaltzen duen idatzi orokor bat aurkeztu zuen. AICEk ere bere iritzia eman zuen. Sindikatu guztiek gure plataformak aurkeztu genituen.

steilasek bere lehentasunak azaldu zituen azalpenak emateko bere txandan (irakasleen lanaldia, kontratazio eta enpleguaren egonkortasuna, 0 - 3 zikloko lan baldintzen duintasuna, DBH 1 - DBH 2 soldaten parekatzea...). Halaber, galdutako eros ahalmena (%9,9), behin-behineko kontratazioen gehiegikeria eta ikastetxe batzuek, Kristau Eskolak sinatu dituen akordioak alde batera utzita, nor bere kasa joateko hartutako jarrera, salatu zituen.

Kristau Eskolak proposamenak ondo aztertzeko hurrengo bilera azaroan izatea eskatu zuen eta azkenean azaroaren 17rako markatu zen.

Negoiazio-mahaia amaitu ondoren, batzorde parekidearen hurrengo bilera ere erabaki zen, lan poltsaren funtzionamendua baloratzeko asmoz. Urriaren 13an izango da.

Mesa del Convenio de Centros de Iniciativa Social.

Ayer, 30 de septiembre, tuvo lugar la 18ª mesa de negociación del *Convenio de Centros de Iniciativa Social de la CAPV*. Kristau Eskola presentó un escrito de carácter general en relación al contexto en el que quiere que se mueva la negociación colectiva. AICE también dio su opinión. Todos los sindicatos presentamos nuestras plataformas.

En el turno de explicación **steilas** hizo públicas sus prioridades (marco de jornada docente, contratación y estabilidad en el empleo, dignificación de las condiciones laborales del ciclo 0-3, equiparación salarial ESO 1- ESO 2...) al tiempo que denunciaba la pérdida del poder adquisitivo (9,9%), el abuso de la contratación eventual y el hecho de que determinados centros vayan por libre, al margen de los acuerdos firmados por Kristau Eskola.

Kristau Eskola solicitó retrasar la próxima reunión hasta noviembre para tener tiempo de estudiar las diferentes propuestas y al final se marcó la reunión para el 17 de noviembre.

Al finalizar la mesa de negociación también se decidió la fecha de la próxima reunión de la Comisión Paritaria con la intención de valorar el funcionamiento de la bolsa de recolocación. Será el 13 de octubre.